

Egun on.

Ongietorri Gipuzkoako Batzar Nagusietara Euskaltzaindiako ordezkari zaretenak, Miriam Urkia, Gotzon Lobera, Erramun Osa.

“Hitzak Lege” erakusketa ibiltariaren irekiera dugu, gaurtik maiatzaren 12 arte egongo dena.

Euskaltzaindiaren babesean antolatua, gure lege zaharretatik egundaino euskarazko idazki juridiko esanguratsuen bilduma da. Legebiltzarrean hasi zen iaz erakusketa ibiltaria eta Nafarroako Parlamentuan jarraitu. Orain Batzar Nagusietan dabil, eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei dagokie txanda. Hizkuntzek eta hitzek duten garrantzia ondo baino hobeto daki gure Akademiak. Eta erakusketaren irekieran, Euskaltzaindiari dagokio lehen hitza. Aurrera.



Eskerrik asko Miriam Urkia, eta zorionak ekimen hau pentsatu eta antolatzeagatik. Euskaltzaindiari zorionak ematean, ezagun batek esaten zuena datorkit: zorionekoa ez da zorionak hartzen dituenak bakarrik, baita gu geu ere. Eta zorionak emateko benetako arrazoia hori da: denok garela zorioneko gertaeraren bategatik.

Hauxe da, ba, gertaera horietako bat. “Hitzak Lege” erakusketa Euskaltzaindiako egoitzean abiatu zenean hitz batzuk egin nituen eta esan nuen Erakusketa honetan hizkuntza bizi baten aztarna antzematen dela: ezkontza eta hileta kontuak, oinordetza kontuak, tokiko araudiak eta beste hainbat gai euskaraz emateko erabakia.

Esate baterako, Gotzon Loberak aipatutakoaz gain, Usurbilgo Udalak euskaraz jaso zituen 1888an ingurumena babesteko ordenantzak, izan ere iraganean ere arduratzen ziren ingurumena zaintzeaz. Bestetik, Giza Eskubideen Adierazpena Nazio Batuek 1948an onartu eta 1950ean euskaraz argitaratu zuten Euzko Gogoan. Zeinek euskaratua-eta, Nikolas Ormaetxea, Orixek, euskal klasiko handiak. Bide batez, gure erreferenteak nabarmendu eta hobeto ezagutzeko aukera ere gerta daiteke ekimen hau. Bai. Behar-beharrezkoa dugu erroak ematen dizkigun hitza eta gure herrian errotutako legea ezagutzea. Gure erreferenteak, gureak. Eta gureak jakinda, gainerakoak. “Hitzak Lege” erakusketa egokia da horretarako. Zorioneko gaude, beraz.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek erakusketari dakarkiotenaz, gauza pare bat nabarmenduko ditut:

1979ko apirilaren 22an, Arrasaten bilkura eginez Gipuzkoako Batzar Nagusiak atzera indarrean jarri zirenean, Jabier Aizarnak, Batzar Nagusietako lehendakari eta diputatu nagusi hautatu berriak euskaraz egin zuen lehenik. Eta, besteak beste hau esan zuen:





“Ikus dezagun nolako garrantzi handiko eguna dan gaur: ehun eta hiru urte eta gero berritzen dira Gipuzkoako Batzar Nagusiak, gure kondairan zehar zeuden eskubideak berriro lortzeko. (...) Ez da berriketako garaia, baizik elkarren arteko lana da, helburu argi batekin: gu denok, bai herri bezala bai pertsona soil bezala, hobeagoak izan gaitezen”.

Eta lehen batzar hartan, jasota dago Batzar Nagusietako Egunkarian, bertaratu zirenek aho batez nola onartu zuten talde guztiek mozio bat, honela hasten zena:

“Apirilaren 3an hautatuak izan diren Batzar Nagusiak irazi ahal izateak, berebiziko aurrerakada dager, erakunde demokratikoeri buruz. (...) Baina eusko begiekin aztertuz, ezin genezake inola ere uste izan, funtsezko jokabidean sartua denik gure Herriaren eskubideak onartu eta eraikuntza mamintzen ez den bitartean. Ez baitutu onargarri den demokrariak izango, Euskadik antzina zituen indarrez kendutako gobernatzeko zuen burujabetasuna itzultzen ez dioten bitartean.”

Eta jarraitu egiten du mozioak, euskaraz. Aurrena euskaraz. Eta gero gaztelaniaz. Bilkura hartako lekuko bat dago erakusketa honetan, Aizarnaren hitzalditik hartua.

Eta aipatu nahi dudan erakusketa honetako beste lekukoa, Martxoaren 8a iragan berritan, zera da: Batzar Nagusiek, mendetako historian lehen aldiz emakume bat lehendakari aukeratu zutenekoa: 1995eko ekainaren 23an, Ester Larrañaga Agirre, azpeitiarra, Eusko Alderdi Jeltzalekoa bihurtu zen Gipuzkoako erakunde zaharreneko aurreneko emakume lehendakaria. Artean ez zen Berdintasun Legerik. Handik 10 urtera onartu zuen lege aitzindaria Eusko Legebiltzarrak. Baina bazegoen kontzientzia, eta hori da gakoa, funtsezkoa, bai bizitzan bai politikan: errealitateaz jabetu eta zer hobetu behar den ikustea eta erabakitzea. Eta bidea urratu egiten da, Ester Larrañagak Batzar Nagusi hauetako gidaritza hartu zuenean esan zuen bezala:





“Ezinbestekoa zait emakume baten ikuspegitik daukadan poza adieraztea, aurrerapauso bat eman dugulako, denok nahi dugun ordezkaritza parekidera iristeko.”

Esan dezagun Batzar Nagusi haietan 6 emakume batzarkide zeudela. Gaur egun 25. Eta hona heltzeko Ester Larrañagak aipatzen zuen nahi hura, eta erabakimen hura, ezinbestekoa izan zen emakumearen gidaritza lege bihurtzeko. 1995az geroztik Batzar Nagusietako buru izan dira Leire Ereño, Rafaela Romero, Lohitzune Txarola eta Eider Mendoza.

Bada, hau dena da “Hitzak Lege” erakusketa, gure iraganeko ibiliaren aztarnak arau eta legeetan eta etorkizuneko bidea irekita dagoela erakusten duena, hitza bizia izateak legea bizitzen duela erakusten digun bilduma.

Xabier Ezeizabarrena Saenz

Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria

2023-03-14

